

años sin que sean retirados por sus padres ó parientes; y cuando así ocurre, la Junta les dedica á que aprendan un oficio sea colocándolos en sus propios talleres, sea haciendo los oportunos convenios con quienes necesiten de aprendices para que los tomen y enseñen su profesión.

Y aun cuando antes se acostumbraba dar á algunos jóvenes la carrera de náutica, ó la de Comercio, actualmente no se obra así por haberse suprimido la escuela de esa clase que en un tiempo existía en esta Capital.

(Se continuará)

---

## LOREAK <sup>1</sup>

---

### On Antonio Okendo-ri bere talluntza-ren aurrean

Landarechoa lurpetikan dan  
bezela gora azaltzen,  
zure talluntzan jarzeak digu  
biyotza pozez alchatzen;  
lorecho batek usai gozua  
duben bezela banatzen,  
joan da kondaira eder zuria  
dena munduan zabaltzen.

Zail da gugandik zure egite  
on ayek zerbait aztutzen,  
ain zalla nola itsas ur dena  
makill batekin nastutzen;

etsai zurea zenduenean  
era bat zugan artutzen,  
ziñan aurrera bekokiz illun  
jarririk zuzen sartutzen,

Orri artetik, gora agertzen  
dan lorearen moduan,  
agertu ziñan gara, iduki  
zaitzagun beti goguan;  
gabeko intzak gozatzen duben  
bezela lurra soruan,  
Euskal-erriyak goza zinduen  
ongiro bere kolkuan,

---

(1) Composición premiada con *accesit* en los Juegos florales celebrados en esta ciudad en 1894.

Zori-onetako zure jayotza  
 izan zan itsas ertzean,  
 ibil zindezen sarri jasoak  
 gudatzen onzi beltzean;  
 ¿nola du gañez egiten esne  
 su gañekuak pertzean?  
 ala berean ziñan gañezten  
 guda soñua lertzean.

¿Choriyak nola eramaten du  
 dezaken dena kabira,  
 bere umeak jatez ornirik  
 irten ditezen argira?  
 gisa berean zedorrek jaso  
 eta ekarriyak dira,  
 lore illezkor onoretsuak  
 zedorren jayot-errira.

Zedorri ondo izerdituas  
 ziñaden ornitu lorez,  
 itsasuetan irabazirik  
 argi zitzazun legorrez;

lore oriyek ematen duten  
 atinditasuna kolorez,  
 izan zan zure disdirasuna  
 ager zezazun onorez.

Badiruri pur pisturik arki  
 zerala emen berriró,  
 zure onore irabaziyak  
 erakutsirik argiro;  
 zure egite guztiyak daude  
 liburuetan garbiro,  
 argatikan da gaur Donostiya  
 arkitzen oso aundiro.

Donostiyak gaur agertzen ditu  
 argira gala gordeak,  
 denbora joanak erakarririk  
 onore aundi zureak;  
 baratz on batek izan ditzaken  
 bañan askozaz obeak  
 dirade zure gudatze onak  
 sortu zituen loreak.

JUAN IGNAZIO URANGA-K.